



2.-Atutxa-Altzibar sendia

Lemoako *Atutxa* oinetxeko jabeak diren **Ortuño de Atucha** eta **María Íñiguez/ Ibáñez de Alcívarren** kontakizuna dugu honako hau, XVI mendean kokatua.

Geroago aurkeztuko ditugun Atutxatarrez mintzo direla, hona zer dioskuen Guillermo eta Luis Gortazarrek euren *Gortázar-Villela. Manurga – Alzusta – Villaro – Bilbao. 1.000 años de genealogía e historia vasca* liburuan (2018: 52):

Biznieto de Maria Saenz de Atucha, nacida hacia el año 1480, dueña y señora de la casa y solar de Atucha, patronos de Lemoa y descendiente de la casa solar y Torre de Castillo en Castillo y Elexabeitia. Casó con Don Juan de Arana Diputado General del Señorío de Vizcaya, hijo de Don Remando Ybañez de Ocerin y de Doña Tota de Ubirichaga de esta casa de Ubirichaga en Yurre.

Nieto de Hortun Saenz de Atucha y Arana, Señor de la casa de Atucha, nacido hacia el año 1510. Casó con Doña Maria Yñiguez (o Ybañez) de Alcaybar de suso, de esta casa en Amorebieta en la Merindad de Zornoza. (Cfr. Archivo de los Marqueses de Rocaverde).

Gortazartarrek kontaktzen digutenaren arabera, **María Sáenz de Atucha** bat dugu, 1480an jaioa, Lemoako *Atutxa* oinetxeko ugazabandre. María hau, Gaztelu-Elexabeitiko *Gaztelu* dorretxeko ondorengo, Igorreko *Ubirixagako* Tota de Ubirichagaren seme zen Juan de Arana Bizkaiko Ahaldun Nagusiarekin ezkondu zen.

Hauen seme da **Ortuño Sáenz de Atucha Arana**, 1510 inguruan jaioa, Lemoan, *Atutxa* oinetxean. Ortuño Sáenz hau Zornotzako *Alzibarbekoa* oinetxeko María Íñiguez (edo Ibáñez) de Alcívarrekin ezkondu zen, 1540 inguruan.

Ematen du, haatik, Ortuño honen jaiotza lehentxoago kokatu beharko genukeela, XV mendearen hondarretarantz, hurrengoaren hasieran, hor nonbait. Izan ere, honela dio lan honetan sarri aipatuko dugun auzi bateko (*RCV-SV, CAJA 1663,3*) lekuko batek:

... se acuerda aber oydo dezir de... **Hurtuno de Atucha**, que hera asi anciano e onbre viejo quando se morio, de hedad de mas de setenta años, suegro que fue de la dha dona Mari Ybanes...

Auzi honetako testigantzok 1572-1576 urte bitartekoak dira...

Auzi berbereko beste testigantza bati bagagozkio, ematen du Ortuño eta emaztea, auziaren garaian behintzat, *Bildosolan* bizi zirela (*ibid.*):

... que un año en un dia de nra señora de agosto por la mañana, antes del amanecer, llego en la casa de Arançaçu, donde este testigo solia bybir, don **Hortuño de Atucha**, padre del dho Pero Vrtiz de Atucha, que vino de la casa Vildosola, donde a la sazón solia bybir...

1526-04-05: (1977: *El Fuero...*, 3-4)

So el Arbol de Guernica, do se suelen hacer las Juntas Generales de este Muy Noble y Muy Leal Señorío de Vizcaya, a cinco días del mes de abril, año del nacimiento de Nuestro Salvador Jesucristo, de mil y quinientos y veinte y seis años.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Estando so el dicho Arbol en Junta General [...] y por la anteiglesia de Lemona, Fortuño de Atucha; y por la anteiglesia de Yurre, Juan de Lasarte; y por la anteiglesia de Aránzazu, Juan de Emegaray; y por la anteiglesia de Dima, Juan de Artadi; y por la anteiglesia de Ceánuri, Juan Urtiz de Arriquirar; y por las anteiglesias de Castillo y Elejabeitia, Juan de Emegaray...

1547-00-22: (BFAAH-N0486/0015)

Escritura de fianza otorgada por Pedro de Aguirre y Gaspar de Bilbao, Regidor, vecinos de la villa de Bilbao, y Antonio de Arexmendi, vecino de la merindad de Marquina, en favor de **Hortuño de Atucha**, en la querrela por lesiones causadas a Hortuño de Aranzazugoitia, vecino de la anteiglesia de Aranzazu.

Agiria, zaharkitua, ezin da kontsultatu.

2.1.-Aurrekariak

2.1.1.-1598ko frogantza bat

Geroxeago aurkeztuko dugun **Pedro Ortiz de Atucha** baten frogantza bat dugu honako hau (AHPG-GPAH AU67,4). Pedrok Oñatiko Unibertsitatean Kolegial izateko frogak pasatu behar ditu, euren artean garaiotan oso arruntak eta xebreak ziren arbasoen odol garbitasun eta kaparetasunari buruzkoak.

Kasu hauetan, lekukoak aurkezten dira eta hauek itaunketa bati erantzun behar diote. Honakoan, galdetuko zaie delakoaren (Pedro Ortiz oraingoan) arbasoak ezagutzen dituzten, nongoak diren, kristau zaharrak diren eta horrelakoak...

Lekukoetako bat Juan de Arr(a)ibi dugu, Bediako¹ elizateko auzoa, hirurogeita bost bat urtekoa. Hona dioskuna:

Testigo Juan de Arribi, vezino de la anteyglesia de Vedia, auiendo jurado en forma dixo auer conocido a Ortuno de Atucha y a dona Maria Ibanes de Alçaibar, su mujer, abuelos paternos del op^{or}., de vista abla y conuersaçion y **tiene noticia ansi mesmo de sus passados del dho Ortuno, por ser vecinos de la anteyglesia de Vedia, donde esta la Cassa de Atucha donde descinden el dho Ortuno y sus passados.**

Martín de Urizar dugu beste lekuko bat, hau ere Bediakoa, hirurogeita sei urtekoa:

Testigo Martin de Uriçar, vezino de la anteyglesia de Vedia, el qual auiendo jurado en forma dixo que conoçio a Ortuno de Atucha y a dona Maria Iniguez de Alçaibar y al L^o Atucha, padre y abuelos paternos del op^{or}., de bista abla y conuersaçion.

A la 3 pregunta dixo... y que esto es Publico y notorio, publica voz e fama comun... y no pudiera ser menos por ser vezino de la **dha anteyglesia donde esta sita la Cassa de Atucha, donde nacio el dho Ortuno de Atucha** y sus passados...

¹ Izan gogoan Lemoa-Bediari buruz hasierako kapituluan azaldua.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Zornotzako jendeak ere ageri dira 1598ko frogantza honetan, Pedro Ortizen amaren aldetiko arbasoen kaparetasuna eta abarren lekuko. Pedro de Epalza esaterako, hirurogeita hamaika urtekoa:

Testigo Pedro de Epalça, vezino de la anteiglesia de Amorouieta, en la tierra de Çornoça, el qual se auiendo jurado en forma, dixo que conosçio a dona Maria Iniguez de Alçaibar, abuela materna del opor., y conosçio a Martin de Alçaibar y a dona Ant³ de Belaustegui, padres de la dha y bisabuelos del dho opor., y tiene noticia de la mesma manera de sus pasados, y conosçio a los arriba nombrados de abla y conuersacion =

2.1.2.-Arantzazu oinetxe eta dorrea

Historia honetan bere tokitxo izango du garai batean Arantzazun izan ziren *Arantzazu* oinetxe eta dorreak. Itxura guztien arabera, egungo *Palazio* etxe inguruan zeuden kokatuak, eleiza eta erreka nagusiaren artean dauden lurretan, burdinola, errota eta guzti².

Aurkeztu dugun 1598ko frogantzan esaten zaiguna:

En la anteyglesia de Arançau, en 3 dias del mes de junio de mill y quinientos y noventa y ocho años, yo el dottor Ondategui Vrrutia rescoui por testigos a los siguientes acerca de la oposicion en que an estado **Ortuño de Atucha y dona Maria Ibanes de Alceibar** en la dha anteiglesia por auer vivido en ella treinta annos poco mas o menos.

Geroago ere mintzatuko gara kontu honetaz, baina ematen du Ortuño de Atucha eta María Ibáñez de Alcívar *Arantzazu* dorretxean bizi zirela noizbait; ez ziren, haatik, onibarren jabe.

Kontakizunaren garaian ere, *Palazio* izenez ezagutzen da oinetxea. Izan ere, aurrerago garatuko dugun 1572-1576 urte bitarteko auzian (*RCV-SV,CAJA 1663,3*), Arantzazuko etxe libreez³ mintzo direla, bi lekukok honako etxe hauek aipatzen dituzte:

Batak “las dhas casas libres e señaladamente nombraron seys casas que son la casa de *Arand(o)* y la casa de *Usabel* e la casa de *Arançaçugoytia* y la casa de *Hegusquiça*, e la casa de Fortuno de Tejeria, e la de Ochoa de Çalbide, e que todas las demas casas que abia en la dha anteyglesia heran casas pecheras de su magestad o de particulares, e que particularmente les oyo decir de como la dha casa de *Ybarra* debia sesenta mrs en cada un año...” diosku; besteak “ha tenido por casas libres este dho testigo a la casa de *Hegusquiça*, e a la casa de *Tejeria* de Hurtuno de Çalbide, e la casa de Ochoa de Çalbibe, e la casa de *Usabel* y la casa de *Arandoy*, y el *palacio de Arançau* en la dha anteyglesia de Arançau.”

² “La espresada *Casa Palacio* y sus pertenecidos indicados pertenecen al vínculo y Mayorazgo regular titulado de Abendaño y de Valdecarzana, que lo fundó don Martín Ruiz de Abendaño y Gamboa, Señor que fue de Villa Real de Alava, por su Escritura de Testamento otorgada en Villa Real de Alava a catorce de octubre de mil quinientos treinta y nueve, ante el Escribano de su número don Diego de Anunciabay, para cuya fundación precedió la aprobación y autorización Real competente, dada en la villa de Valladolid a trece de Mayo de mil quinientos treinta y ocho, ante Don Juan Vázquez Molina, Secretario de sus Magestades la Reina Doña Juana y su hijo Don Carlos primero... (*DJE_Arantzazu_03_01*)

³ Beste inongo etxerekin inolako dibisa edo/ta zergarik ez zuten etxeak omen ziren etxe libreak.



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik



1567ko agiri batean (ZUA_03_Leginetxe_1567), bestalde, honako hau irakur genezake aurkeztar dugun **Pedro Ortiz de Atucha** bati buruz:

En Çiorraga, que es en la anteyglesia de Arrancudiaga, a veinte y seis dias del mes de junio de mill y quinientos y sesenta y siete años, en presencia de mi P^o de Leguinaeche, scriuano de su Magd e testigos de yuso escritos, parecio presente **Pero Vrtiz de Atucha**, vezino de la anteyglesia de Arançaçu, en nombre del señor don **Prudencio de Gamboa e Avendaño**⁴ y por virtud e poder que dice tener de el dho señor don Prudencio ante escriuano publico...

Edo aurkeztu berri dugun *Hormaetxe* oinetxeko auzian esan zaiguna (RCV-RE,CAJA 1831,28):

treinta y cinco ducados a **Pero Hortis de Atucha**, mayordomo del dho don prudencio para en parte de pago de los dhos sesenta ducados que ansi yo y la dha mi muger deuiamos al dho don prudencio
=

1572an, Pedro Ortiz de Atucharen alarguntsak egiten duen inbentario batean, senarraren zorren artean hurrengo zerrendatzen du:

Yten dixo la dha doña Mari Ybanes que el dho Pero Vrtiz de Atucha deuia al señor don Diego de Avendaño ciento ducados por un----- de los diezmos de Yurre entre treinta e tres myll mrs **de rentas de la herreria e pertenezidos e molinos de Aranzazu** que se ----- por el dia de Navidad primero pasado que heran de pagar al dho señor don Diego (ZUA_03_Leginetxe_1572_01).

⁴ “**Prudencio de Abendaño y Velasco**, 5^o Señor de Villarreal de Álava. Nació hacia 1510. Murió el 22-IV-1568. Está sepultado en la Iglesia de Villarreal de Álava. Tuvo cuatro matrimonios (cfr. Luis de Salazar y Castro, *Historia generalógica de la Casa de Lara*, p. 450): I) Con Luisa de Beaumont y Navarra e Icart, procreo a 1^o) Diego de Abendaño y Beaumont (que casó con doña Luisa Sarmiento, que falleció en 1612 siendo Dama de Su Majestad la Reina), y tuvieron por hija a **Isabel Ángela de Abendaño**, que casó con **Martín de Abendaño y Zabala**...” <http://www.bisabuelos.com/med/abendano.html>

“**D. Diego de Abendaño y Beaumont**, Señor de Villarreal y de las casas de Olaso y Urquizu con sus patronatos; militó a su costa en la conquista de Portugal y en la defensa de las costas de Vizcaya contra los ingleses mandados por Drack. Casado con doña Luisa Sarmineto de Mendoza. Hijos: D. Francés, que murió niño, y doña Isabel Angela, que casó con don Martín de Zabala, Caballero de la Orden de Santiago, y murió sin posteridad, extinguiéndose en ella esta línea, y sucediendo en las casas de Olaso y Urquizu don Luis de Guebara, primer Conde de Escalante y Marqués de Rucandio, hijo de don Antonio de Guebara y doña María de Abendaño Beaumont, en cuya descendencia se han conservado.”

<http://geneaordonez.es/datos/getperson.php?personID=16116&tree=Miarbol>



Atutxak aitzakia: behinolako etxe-abizen baten arrastoen bidetik

Ikus dezagun, azkenik, 1621 urteko jarraiko testigantza hau (BFAAH-JCR1600/018):

En la Villa de Villaro a diez y ocho dias del mes de março de mill seiscientos y veinte años Martin Ruiz de Villela, administrador a bienes y Maiorazgo de la cassa de Auendaño pertenecientes a don Martin de Auendaño y Çauala y doña Ysauel Angela de Avendaño su muger, por testimonio de mi el presente escriuano: dixo que la herreria, molinos, torre de Arançau...

Argi erakusten zaigu, bada, *Palazio* oinetxe, dorre, burdinola eta abarrak Abendañotarrenak zirela eta, gerora Martín Ruiz de Villela izango den bezalaxe, kontakizunaren garaian Atutxatarrak administratzaile besterik ez direla; euren oinetxea Lemoan dutela.

Kontuan izan behar dugu, haatik, Juan de Atucha izan zela *Atutxa* oinetxeko jabe; eta Pedro Ortiz de Atuchak, Ortuño eta María Ibáñez en seme zaharrena, erosi egin ziola. Argi erakutsi digute Pedro Ortizen frogantzek bere aita Ortuño *Atutxan* jaioa dela... Oraingo honetan ere uste (ustel?) hutsetan gabiltza, baina litekeena da Juan eta Ortuño de Atucha ahaide (anaia?) izana...

Hurrengo kapituluetan Ortuño de Atucha eta emazte Maria Ibáñez de Alcívarren ondorea aurkeztuko dugu.